

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Basaburua-ko nahiz Imotz-eko udalek eraikin tradizionalak birgaitzea sustatuko dute

Bi udalerriek "birgaitzeko lehentasunezko eremu"-aren aitortpena jaso dute Gobernuaren aldetik, beren sustatzaile-erabiltzaileei diru-laguntza bermatzen diena

Viernes, 01 de febrero de 2013

Nafarroako Gobernuak, Sustapen Departamentuaren eta Basaburua nahiz Imotz-eko udalen bitartez, bizitokien birgaitzea sustatuko dute arkitektura tradizionalaren aldeko apustua egiten den udal-mugarte horietako zonalde zehatzetan. Horretarako, bi udalek "birgaitzeko lehentasunezko eremu"-aren aitortpena eskatu eta jaso dute berriki, sustatzaile-erabiltzaileei diru-laguntzak bermatzen dizkienak babestutako birgaitze-kontzeptuan

Sustapen Departamentuak, beren babesteko plan bereziak izapidetu eta onartu direla egiaztatu ondoren, eta beren aurrekontuetan behar besteko dohaintza bideratu dela lanak aurrera eramateko, bi ekimenak babestu ditu eta birgaitzeko lehentasunezko eremu aitortu du Basaburua eta Imotzeko eraikin-taldea dagokien Babes eta Barne Erreformatarako Plan Berezietan adierazitakoak.

Bi udalerriek beren eskaera urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 86. artikulua babesean egin zuten; artikulua horrek jasotzen du ere, kontzeptu hori landako eraikuntza tradizionalen sakabanatutako taldeei ere zabaltzeko aukera.

Artikulu horren arabera, diru-laguntza jasotzeko, eremu horiek erabakitzea zuzentzen dituzten irizpideak honako hauek dira: "Eraikuntzagatik zonalde finkatuetan kokatuta izatea duela 50 urte baino gehiagotik eta hirigintzako plangintza egokia dutenak, Babesteko edota Barne Erreformatarako Plan Berezia izan daitekeena edo, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak badira, udal-plan orokorra bera, baldin eta eremu horietarako haren erabakiak xehatuta badaude aipatutako plan berezien era baliokide batean".

Gainera, beharrezkoa da "indarrean egotea birgaitzerako laguntzaren berriazko uda-ordenantza".

Birgaitzeko lehentasunezko eremu aitor daitezke Babesteko edota Barne Erreformatarako Plan Berezi bat indarrean dagoen hirigune historikoak eta eraikitako eraikuntza-taldeak, eta eraikinen % 70 baino gehiagok 50 urte baino gehiago dituzten hirigune historikoei edo etenik gabeko eraikuntza-

taldeei eragiten dietenak. Portzentaje hori eraikinen % 90era igoko da landako eraikuntza tradizionalen sakabanatutako taldeen kasuan.

Birgaitzeko lehentasunezko eremuen aitortzenak eskatuko du, gainera, Birgaitzeko Bulegoaren aurretiazko txostena, bertan jasoko direnak, eta eremu horiek birgaitzeko berariazko laguntzen udal-ordenantza.

Babestutako birgaitzeko obrak amaitu direla egiaztatu ondoren, Nafarroako Gobernuak sustatzaile-erabiltzaileei aurrekontuaren % 40 ordainduko die IPREMa 3,5 aldiz gaintzen ez duten diru-sarrera ponderatuekin.

Birgaitzeko lehentasunezko eremuaren estatusak izaera egonkorra du eta orain arte, laurogeigarren hamarkadan eremu horiei laguntza-politika ematen hasi zitzaientetik, honako hauek izendatu dira: Cintruénigo, Corella, Lizarra, Galipentzu, Iruña, Gares, Tafalla, Tuter, Viana eta Villafranca. Nabarmendu behar dira, lanen tamaina eta garrantziagatik, honako udal hauei emandako aurrekontu eta diru-laguntzak: Iruña (110.863.982 eta 40.115.981 euro), Tuter (12.923.007 eta 5.115.486 euro), Lizarra (9.323.441 eta 3.727.497 euro) eta Tafalla (3.879.513 eta 1.516.851 euro).